



BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektua, “esku erosketak” deituko da eta ezgaitasunak dituzten pertsonak, adineko pertsonak zein erosketak egiteko edozein arazo dituzten pertsonak laguntzeko pentsatuta dago.

Idea honetan pentsatu genuen, egun batean Eroskin geundelako eta down sindromea daukan mutil bat ikusi genuen, eta bere kabuz produktuak erosteko gai ez zela ikusita zerbitzu hau sortzea bururatu zitzaigun. Gaur egun, bizitza arrunterako beharrezko jarduera guztiak automatizatuta daude eta ekintza arrunt asko egiteko zailtasunak dituzten pertsonak aurkitu ditugu. Horrela, guk gure laguntza eskeini nahi diegu egunarokotasuna ahal den neurrian errazagoa izateko. Hots, batez ere ezgaitasunak dituzten pertsonak laguntzea nahi dugu eta haien egunerokotasuna erraztea.

Proiektu honek, erosketak fisikoki eta laguntzarekin egiteko aukera ematen du. Hau da, ezintasunen bat daukan edozein pertsonak, supermerkatuan txoko batera hurbildu eta hor pertsona batek erosketa egitera lagunduko dio.

Gure produktua beste produktuetatik bereizten da, pertsona horrek produktuak zinta batean mugitzen diren ahala ikusi eta nahi dituen ala ez erabaki ahal izango duelako. Gure bulegoak supermerkatuetan egongo dira fisikoki. Beraz, bezeroak bulegora etorriko dira eta han guk beraien erosketak egiten lagunduko diegu.